bakidun konstituzionaltasunik ezaren errekurtsoa izapideetan jartzea onartu du Konstituzio Auzitegiak, urte honetako azaroaren 18an eman duen probidentziaz.

Madril, 1992ko azaroak 18.

ZUZENTZA IDAZKARIA.

IDAZKARI NAGUSIA.

24 en relación con el artículo 107.4, 109 y 110 y conexos, de la Ley del Parlamento Vasco 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

Madrid, a 18 noviembre de 1992.

EL SECRETARIO DE JUSTICIA.

EL SECRETARIO GENERAL.

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## EKONOMIA, PLANGINTZA ETA INGURUGIRO SAILA

### 3671

313/1992 DEKRETUA, azaroaren 24koa, Urdaibai Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko Legea garatzen duena, Zaingo Batzordeak eman beharreko txostenei dagozkienetan.

Urdaibai Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legeko 18. ataleko 3f) apartaduan, gebenalde horretako Zaingo Batzordearen egitekoen artean, honako hau finkatzen da: hiri antolaketarako egitamuei eta gebenaldearekiko eragina izan dezaten alor-egitamu edo ekintza-egitamu guztiei buruzko erizpenak eman behar dituela.

Horretarako eta atal horretan ezartzen dena bete ahal izateko, beharrezkoa da, txosten-prozedura finkatzea, era honetan, hirigintza plana, Urdaibai Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean ematen diren artezbideei egokitu ahal izateko.

Halaber, uztailaren 6ko 5/1989 Legean jasotzen diren helburuak betetzea xedetzat izango duen eta Urdaibai biosfera-gebenaldeari buruzko erregimen juridiko berezi bat gertatzeko den Gebengunea Erabiltze eta Kudeatzeari buruzko Plan Arautzaileari behin-betiko onarpena laster emango zaionez, beharrezkoa da, plan horretan jasoko diren xedapenak kontutan hartzea.

Horiek horrela, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko azaroaren 24an egin zuen bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Hiri antolaketarako egitamuei eta gebenaldearekiko eragina izan dezaten alor-egitamu edo ekintza-egitamu guztiei dagozkienetan, Urdaibaiko biosfera babesteko Zaingo Batzordeak eman behar dituen txostenei buruz uztailaren 6ko 5/1989 Legean esaten dena garatzea da Dekretu honen helburua.

*2. atala.*– Uztailaren 6ko 5/1989 Legeko 18. ataleko 3f) apartaduan ezartzen dena betez, gebengune honen medio fisikoan eragina izan dezakeen edozein hirigintza-plan edo ekintza-programa, Urdaibaiko biosfera babesteko Zaingo Batzordearen erizpean jarri beharko dira, planari behin-behingo onarpena eman baino lehen.

## DEPARTAMENTO DE ECONOMIA, PLANIFICACION Y MEDIO AMBIENTE.

### 3671

DECRETO 313/1992, de 24 de noviembre, por el que se desarrolla la Ley de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, sobre emisión de informes por el Patronato.

El artículo 18 apartado 3f) de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai establece que entre los cometidos y funciones del Patronato de dicha Reserva se encuentra informar sobre los planes de ordenación urbana y cualquier otro plan sectorial o programa de actuación con influencia en el medio físico de la Reserva.

A tal efecto y con el fin de dar cumplimiento al citado artículo se hace preciso el establecimiento de un procedimiento de informe que permita la adecuación del planeamiento urbanístico a las directrices contempladas en la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

Asimismo la próxima aprobación definitiva del Plan Rector de Uso y Gestión como instrumento destinado a dar cumplimiento a los objetivos contemplados en la Ley 5/1989, de 6 de julio, orientado a la constitución de un régimen jurídico especial para la Reserva de la Biosfera de Urdaibai hace necesario tener en cuenta las prescripciones contenidas en el mismo.

En su virtud y a propuesta del Consejero de Economía, Planificación y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 24 de noviembre de 1992,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Es objeto del presente Decreto el desarrollo de la Ley 5/1989, de 6 de julio, sobre emisión de informes por el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdabai en relación con los planes de ordenación urbana y cualquier otro plan sectorial o programa de actuación con influencia en el medio físico de la Reserva.

*Artículo 2.*– En cumplimiento de lo establecido en el artículo 18 apartado 3f) de la Ley 5/1989, de 6 de julio, se someterá a informe del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai cualquier figura de planeamiento urbanístico o programa de actuación con influencia en el medio físico de la Reserva, con carácter previo a su aprobación provisional.

*3. atala.*– Urdaibai Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean eta Gebengunea Erabiltze eta Kudeatzeari buruzko Plan Arautzailean ezartzen dena, hirigintza planari egokitzen zaion ala ez aztertu eta baloratuko da Zaingo Batzordeak emango duen txosten horretan eta, ondorioz, egokiketa hori egiteko sartu behar diren aldakuntzak zehaztu beharko dira bertan.

*4. atala.*– Plana sustatzen duen erakundeak, Zaingo Batzordearen erizpean jarriko den dokumentuaren bi kopia bidaliko dizkio Zaingo Batzordeko Lehendakariari. Honek dei egingo die Zaingo Batzordeko kideei eta, dokumentua eskuratu ondorengo bi hilabeteko gehienezko epearen barruan, txostena eman beharko da.

Txostena eman gabe aipatu den epe hori igarotzea gertatuz gero, aldezkoa dela ulertuko da.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko esku ematen zaio Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburuari.

*Bigarrena.*– Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko azaroak 24.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburua,
JON LARRINAGA APRAIZ.

*Artículo 3.*– El informe que emita el Patronato analizará y valorará la adecuación del planeamiento urbanístico a lo establecido en la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y en el Plan Rector de Uso y Gestión de dicha Reserva, señalando las modificaciones que deban introducirse a fin de lograr dicha adecuación.

*Artículo 4.*– El organismo promotor del planeamiento remitirá dos ejemplares del documento que se someta a informe del Patronato al Presidente del mismo, el cual lo convocará al efecto, emitiéndose dicho informe en el plazo máximo de dos meses a partir de la recepción del documento.

Transcurrido dicho plazo sin que se haya emitido el citado informe se entenderá que éste ha sido favorable.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero del Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Economía, Planificación y Medio Ambiente,
JON LARRINAGA APRAIZ.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Oposaketa eta Lehiaketak
## Oposiciones y Concursos

**LEHENDAKARITZA,**
**LEGE ARAUBIDE**
**ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA**
***H.A.E.E.***

**3672**

ERABAKIA, 1992ko abenduaren 10ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariarena, 1992ko maiatzaren 8ko Deialdiari jarraiki, 1992ko irailaren 7ko Erabakiz (HEAA, 1992-09-15, 180 zk.) hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probetarako onartutako eta bazter utzitako azterketarien behinbetiko zerrendaren kontra ipini ziren berraztertzeerrekurtsoak ebazten dituena; eta 1992ko irailaren 8ko Erabakiz (HEAA, 1992-09-16, 181 zk.) aipatu azterketetan azterketariek lortutako emaitzen behinbehineko zerrenda zuzendu (hutsen zuzenketa) eta behin-betikotzen duena.

Onartutako eta bazter utzitako azterketarien behinbetiko zerrendaren kontrako berraztertze-errekurtsoak aurkezteko epea amaituta, aurkeztu direnak aztertu eta

**DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA,**
**REGIMEN JURIDICO**
**Y DESARROLLO AUTONOMICO**
***I.V.A.P.***

**3672**

RESOLUCION del 10 de diciembre de 1992, del Director del Insitituto Vasco de Administración Pública, por la que, en relación a la Convocatoria del 8 de mayo de 1992, se resuelven los recursos de reposición presentados contra la lista definitiva de admitidos y excluidos de las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos publicada por la Resolución del 7 de septiembre de 1992 (BOPV, 15-09-1992, n.º 180); y por la que se procede a la corrección de errores y a elevar a definitiva la lista provisional de calificaciones publicada por la Resolución del 8 de septiembre de 1992 (BOPV. 16-09-1992, n.º 181).

Finalizado el plazo de presentación de recursos de reposición contra la lista definitiva de admitidos y excluidos, a la vista del examen y resolución de los pre-